

Konposizio saria



“Gipuzkoako paisaiak”

Natura Gipuzkoarra zabaltzeko eta ezagutzeko “*Gipuzkoa Naturaldia*” programaren barruan, eta gure paisaiekiko sentsibilizazio, zaintza eta errespetu handiagoa bilatzeko asmoz, musika-konposizioa eta natura uztartuz, gipuzkoar gazteen artean ingurumenarekiko errespetuaren berezko balio gisa, obren konposizioan kokatutako lanak egitea proposatzen da, Gipuzkoako musika-ikastetxeetako ikasleek interpreta ditzaten. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko diputatuak “Gipuzkoako Paisaiak” lehiaketa sortu du, honako oinarri hauei jarraituz:

OINARRIAK:

Lehenengoa. - **HELBURUA:**

“Gipuzkoako paisaiak” konposizio-lehiaketaren helburua erreperitorio berria sortzea da, honako hauentzat:

- Orkestra sinfonikoa
- Ganbera-Musika
- Pianoa

Gaiak “Gipuzkoako paisaiak” izango ditu ardatz.

Lanak memoria labur bat izan beharko dute, musikak deialdian eskatutako gaiarekin duen loturari buruzkoa.

Bigarrena- **PARTE-HARTZAILEAK:**

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango du baldintza hauek betetzen dituen edozein pertsonak, epaimahaikideek izan ezik:

1. Gipuzkoan jaioa izatea edo bertan bizi izatea (bi kasuetan ziurtagiria eskatuko da).
2. Gehieneko adina: 36 urte 2023ko abenduaren 31n.

Hirugarrena- **AURKEZTU BEHARREKO OBREN BALDINTZAK:**

1. Orkestra Sinfonikoa.

Orkestrazio librea (bi interprete edo gehiago), forma librea, bakarlariarekin edo gabe. Gutxieneko iraupena: 8 minutu.

2. Ganbera-musika.

Bikotetik libre taldekatzea, modu librean eta gutxienez 8 minutuko iraupenarekin.

3. Pianoa.

- Oinarritzko Irakaskuntzei dagokien mailako 6 pieza, 90 segundotik 2 minutura bitarteko iraupenarekin (pieza bakoitzeko) eta estilo librean.

Edo

- Irakaskuntza Profesionalei dagokien mailako 3 pieza, gutxi gorabehera 3-5 minutuko iraupenarekin (pieza bakoitzeko).

Laugarrena. - **DOKUMENTAZIOA:**

Hautagaiek gutun-azal bat bidali edo emango dute, bidaltzailerik gabe. Gutun-azal horretan honako hauek jasoko dira:

1. Idatzizko konposizioak, musika-edizioko programa informatiko batekin editatuta egon beharko dutenak (ez da eskuizkriburik onartuko). Anonimotasuna bermatzeko, partituren azaletan obren izenburuak bakarrik aipatu beharko dira.
2. Memoria laburra, musikak deialdian eskatutako gaiarekin duen loturari buruzkoa.
3. Gutun-azal itxi bat, hautagaiaren datu pertsonalekin, NANaren fotokopiarekin eta eskatutako baldintzak egiaztatzen dituzten agiriekin.

Bostgarrena. - **AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA:**

Entregatzeko azken eguna 2023ko azaroaren 30a izango da.

Lekua: CPM Francisco Escudero MKP

Easo kalea 45

20006 Donostia

Seigarrena. – **EPAIMAHAIA:**

- Epaimahaia lehendakari batek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatuak edo hark eskuordetutako pertsonak eta Donostiako Francisco Escudero MKPk izendatutako hiru kidek osatuko dute.
- Epaimahaiak konposizio-teknika, gauzate-mailaren egokitasuna eta originaltasuna baloratuko ditu, deialdiak eskatzen duen gaia kontuan hartuta.
- Sari honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea eta epaimahaiaren erabakien erabateko adostasuna eskatzen du.

Zazpigarrena. – **SARIAK*:**

- Orkestra Sinfonikoa. Bakarra, 5000 €-koa
- Ganbera-musika. Bakarra, 2500 €
- Pianoa. Bakarra, 2500 €

Sariak ex aequo izan daitezke: kasu horretan, hautatutako pertsonen artean banatuko dira.

Zortzigarrena. – **Bestelakoak:**

Aldundiak obrak editatzeko aukera aktibatuko du, baita horiek gauzatu, hedatu eta Donostiako Kontserbatorio Profesionalaren programazio didaktikoetan sartzeko aukera ere.

Hautagaiek lan bakarra aurkeztu ahal izango dute kategoria bakoitzeko, eta gehienez ere bi kategoria aukeratu ahal izango dituzte.

* Zenbateko gordinak

